



# ONGI ETORRI BASERRIRA 2023

Baserria eta hiriaren arteko zubigintzan

[www.ongietorribaserrira.eus](http://www.ongietorribaserrira.eus)



## Zer da ONGI ETORRI BASERRIRA! ?

**ONGI ETORRI BASERRIRA! ENBA nekazal elkarteak sustatutako ekimena da eta bere helburu bakarra, Euskadin elkarbizi diren landa ingurunea eta hiriak hurbiltzea da.**

**Ekimena hau Ate Irekietako asteburuan gauzatzen da non baserritarrek heuren etxeetako ateak zabaltzen dituzten interesa duen orok, bertaratu eta baserritarrek bizi diren parajeak, herrixkak ezagutu eta heuren ogibidea eta ekoizten dituzten elikagaiak ezagutu ditzaten.**

## Gure helburuak

---

- **Baserria eta hiria arteko zubiak eraiki**
- **Kontsumitzaileak baserritarra pertsonalki ezagutzea**
- **Elikagaiak ekoizteko era ezberdinak ezagutzera ematea**
- **Kalitatezko elikagaiak eta hauek babesten dituzten markak eta zigiluak ezagutzera ematea**
- **Baserritarrek egiten duten lana balioestea**
- **Hirian bizi den kontsumitzailea, baserritarrek bizi diren herriak eta auzoetara joan araztea**





# Nola funtzionatzen du ONGI ETORRI BASERRIRAK?

**ONGI ETORRI BASERRIRA!**, bere webgune propioa du eta bertan, besteak beste, ate irekietako programa dago.

Ate irekietako atalean behin sartuz gero, interesa duenak bisitatzeko dauden baserrien zerrenda du ikusgai eta bakoitzaren berezitasunak ikusi ostean, hautaketa egin dezake.

Webgunean bertan ere izena eman dezake eta berehala jasoko du, izena ematearen konfirmazioa. Hortik aurrera, eguna noiz iritsiko den itxaron besterik ez du eta aukeratutako baserrian bertaratu, webgunean jasotzen den kokapenean eta ordutegian.

---

## Behin eguna heldutakoan

Baserritarrak bere baserrian jasoko ditu bisitari-lagunak eta bera bizi den herria, parajea eta berarekin bizi eta lanegiten duen familiartekoa azaltzen hasiko da.

Ondoren, berak ekoizten duena, darabilen ekoizpen eta merkaturatzeko era azalduko ditu eta bisitariak egindako galderak erantzuten eta zalantzak argitzen jardungo da, elkarrizketa lasai eta sano bidez.

Azkenik, bisita amaitzean, baserritarrak elikagaiak dastatzeko aukera eskeiniko die.



# Ongi Etorri Baserrira!ren ibilbidea, labur-labur

**Ongi Etorri Baserrira! 2014 urteko udaran abiatu zen, 8 baserrietako ateak zabaldu zirelarik eta 90 bisitari izan ziren.**

**Geroztik, urtero urtero, baserri kopurua eta bide batez, bisitarien kopurua ere etengabe igotzen joan da eta iaz, 2022 urtean, pandemiaren etenaldiaren ostean, 25 baserri zabaldu ziren.**

**Aurtengo edizioan, 2023 urtean, Bizkaia eta Gipuzkoako 25 baserri zabalduko ditugu, azpisektore anitzekoak eta lurralde osoan sakabanatuak.**





## Ongi Etorri Baserrira! 2023

### **Uztailak 7 ostirala**

**Antzuola (7):** Lamariano Azpikoa. AMA-TXO gaztandegia (ardiak eta gazta ekologikoen sorta zabala)

**Amezketza:** Zuzitza (txerriak eta behi pirenaikoak)

**Asteasu.** Bulano. (Esne behiak)

**Azpeitia:** Premi-etxeberri (okelerako behiak, ardiak eta gazta)

**Beizama (7):** Oiarbi-Saletxe (behi limusinak eta txerriak) ) Elgoibar:

**Mausitxa** (ardiak, gazta eta okelerako behiak)

**Getaria:** Giez Berri (eztia)

**Igorre.** Urkitze (esne behiak, okelerako behiak eta landa oiloak)

**Haur Tailerra:** NIREA

**Urnieta (I):** Onddoak Otazu (shitake perretxikoak)

**Zerain:** Ariztizabal (basoa) - Txirbil (egurrezko txirrinduak) Zerain-

**Idiazabal:** Olabide (ardiak) eta ONDRAMUÑO (ARANBURU gaztandegia)



# Ongi Etorri Baserrira! 2023

## Uztailak 8 larunbata

- Antzuola (8): Lamariano Azpikoa AMA-TXO gaztandegia (ardia eta gazta ekologikoen sorta zabala)
- Aralar: Beltzulegi Segurola artzain familiaren txabolara joango gara, bere bizimodua eta gaztagintza ezagutzeko. Oinez 2 ordutako igoera da eta beste horrenbeste beherantza. Mendirako arropa eta oinetakoak eraman eta bide batez, ogitartekoa eta edaria. Bereziki, jende helduarentzat.
- Aretxabaleta: Areantza Etxebarri (esne behiak eta jezteko errobeta)
- Beizama (8): Urkizahar (mahastiak eta txakolin ekologikoa)
- Donostia. POKOPANDEGI. (esne behiak eta GOENAGA yogurra)
- Errezil: Basabe Barrena (sagastiak eta baserriko ogia) Haur tailerra:
- Kortezubi. OLOSABA. (Okelerako behiak - salmenta zuzena)
- Loiu: ABAROA (erlezaintza eta eztia ontziratzea)
- Oñati: Gomiztegi (ardiak eta gazta)
- Ordizia: Arramendi (esne behiak eta ardiak)
- Urnieta (II): Eula (sagastiak eta sagardotegia) Adarrazpi (ardiak, gazta eta mamia) Bazkari-dastaketa kontratatu daiteke bertakoekin aurrez hitzeginda.
- Zarautz: Baso Beltz (barazkigintza)
- Zumaia: Xarrondo Behekoa (esne behiak, esnea ontziratua eta jogurra)





Bisitaren Ordutegia: 11:00 – 14:00

Baserri eta ibilbide gaineko informazioa:

[www.ongietorribaserrira.eus](http://www.ongietorribaserrira.eus)

Izena emateko: [www.ongietorribaserrira.eus](http://www.ongietorribaserrira.eus) -  
ko izen-emateko orrian

Izena emateko azken eguna :Uztailak 4 de Julio  
(barne)

Izena ematea DOHAIN da

Informazio telefonoa: 943 65 01 23

*Jarrai gaitzazu sare sozialeetan!!*



[WWW.ONGIETORRIBASERRIRA.EUS](http://WWW.ONGIETORRIBASERRIRA.EUS)





ONGI ETORRI  
BASERRIRAKo  
arduradunaren  
**Xabier Iraola - 699 46 76 86**  
kontaktuia